



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

Gazteen lekua bizitza publikoan



Gazteen lekua bizitza publikoan

Estelle CARRICONDO, Jordan PARISSÉ et Françoise PAUTRIZELek animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Gazteak bizitza publikoan lotzeko, lehenik eta behin, lurraldean geratzeko aukera behar dute ukan. Garrantzitsua da **lurraldearekiko lotura**, batez ere ikasketen bitartean eta lurraldera itzuli arte.

Euskal gazte anitzek uzten dute lurraldea lizeoa bukatu dutenean, batez ere goi mailako ikasketak egitera hiri handietara joateko, han aukera gehiago baitute. Haien itzulera zail gerta daiteke, hainbat arrazoi praktikorengatik (bereziki bizitegien prezioa), baina baita lurraldearekin atxiki eta zaindu behar den lotura mantentzeko ahalaren faltagatik.

Gazteek bizitza publikoan lotzeko **mistotasuna** ere dugu jokoan:

- Adar desberdinetako ikasleen artekoa (unibertsitateko ikasleak eta lanbide lizeoetakoak),
- Lurralde desberdinetatik datozen gazteen artekoa.

Hirietako eta baserrialdeetako gazteen pentsamoldeak elkarren bestelakoak direlako ustea dago: baserrialdeetako adibidea besta batzordeetan gazteek duten parte hartzea da; «gazteen arteko» lekuak dira, non proiektuak elkarrekin prestatzeko antolatzen baitira.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Halek ezerekin lotu aitzin, gazteak lurraldean geratzea ala ez geratzea proposatzen zaien **formakuntza eskaintzari** loturik da. Baxo ondorengo ikasketa gehiago proposatu beharko lirateke Euskal Herrian, unibertsitate gehiagorekin, hala bertako gazteentzat nola beste eskualdetatik etorriko liratekeen gazteentzat ere.

Horrez gain, **gazteei herritartasunaren zentzua eskaini behar zaie**. Herri biltzarrak gazteei zabal dakizkieke eta proiektuak gazteei gehiago azalduz gero, hobe hartuak lirateke. Gizarte bizitzan lotzea txiki-txikitatik egin daiteke (lehen hezkuntzatik edo kolegioan, hondakinen sailkapenaren garrantziaz ohartarazten, adibidez). Garrantzi handia du gazteek herritartasunari loturik egin dezaketen guztiari balioa ematea.

Llaburki, honako hauek beharko lirateke egin:

- **gazteentzat**: haientzako eskaintza bat garatu, formakuntzako edota lanpostuekin
- **gazteekin**: eskaintza hori zehazten parte har dezaten bultzatu, haien ekintzak lagundu
- **Gazteek berek eginak**: gazteen ekintzak ezagutu, sustatu eta balioetsi

URRATZEKO BIDEAK...

- **Lanpostuen plataforma** Euskal Herrian, irakaskuntza eskaintza garatzea
- Diruzko **sostenguak**, **laguntza** teknikoak, elkarteak **sarean ematea**
- Lurralde proiektuetan **gazteen parte hartzeari** leku egitea